

OSTIRALA, 2026ko UZTAILAREN 10a

Karmenak 2026

TRINTXERPE

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

Arrantzale eta danbor hots artean

Hilaren 15etik 19rako tartean egingo dituzte Pasaiaiko laugarren jaiak, Trintxerpeko Karmengo Amaren Festak. Garaguneko kideak izango dira txupineroak. • 23-26



Antolatzaileak Gernika plazan jartzen duten podiumean. Trikaia

Karmenak bukatzeko, izerdia Trintxerpen

MIKEL DEL VAL GARCIA

Taiak ez dira soilik parranda egitea, eta hori argi dute Trintxerpen, hila-
ren 19an (igandea) indarra hartzen ari den Karmengo Amaren herri lasterketa egingo baita barrutiko kaleetan. Trintxerpeko Trikaia Atletismo Klubak antolatzen du proba, eta aurtengoa bosgarren ekitaldia izango da, jaietan errotzen ari denaren seinale.

Atletismoaren zaleek goiz oso batez gozatu ahal izango dute Trintxerpen. 09:20an handbike modalitatekoen parte hartzaileak irtengo dira Gudari pla-

zako irteeratik. 09:30ean korrikalariak aterako dira, eta bi proba horiek bukatu ondoren, haurren lasterketa jokatu da, 10:30etik aurrera. Helmuga Gernika plazan kokatu dute, eta bertan jarriko dute barra solidarioa, lasterketa girotzeko. Sariak ere leku berean banatu dituzte.

Karmengo Amaren herri lasterketa 5 kilometrokoa da. Zirkuitua erabat laua da, oso egingarria, eta Unai San Sebastian Trikaia kide eta probaren antolatzaileak adierazi du edonork osa dezakeela ibilbidea. Gudari plaza-
tik atera ondoren, Euskadi etorbide-
tik, Correosetik eta San Pedroko puntetatik

pasako dira, Gernika plazan bukatzeko. San Pedron, gainera, Pasaiako badia ikusi ahal izango da, eta eremu hori nabarmendu du San Sebastianek, bistak ederrak baitira.

Urtetik urtera lasterketa indarra hartzen ari da, eta ohiko bihurtzen ari da karmenetan, ezinbestekoa. Lehen urtean 80 pertsonarekin egin zuten lasterketa, eta, aurtun, 300 lasterkari inguru espero dituztela baietsi du Trikaia kideak. Mota honetako proba bat prestatzea «nekagarria» dela aitortu du San Sebastianek, baina lasterketaren egunean sortzen den giroa ikusten duenean, esfortzu guztiak me-rezi duela onartu du. Gutxi gorabehera, 600 pertsona biltzen dira Trintxerpen lasterketaz gozatzeko.

Lasterketa bat baino gehiago

Karmengo Amarena lasterketa bat baino gehiago da, lehiatik harago doana. Izen emateak irekita daude, eta horiek Kirolprobak atarian egin behar dira, 12 euroan. Izen emateen euro bat Markelen Irria elkarteari emango diote. «Markel ezagutu genuenean bihotza lapurtu zigun. Markelek ematen dio zentzua lasterketari». Barra solidarioan bildutako diru guztia ere elkarteari ematen diote osotasunean, eta zozketak ere egiten dituzte.

Haurren lasterketaren izen emateak ere Kirolprobak-en egin behar dira, doan. Sustatzaileen helburua da haurrak gaztetatik kirolean murgiltzea. 2014 eta 2022 urteen artean jaiotakoak aritu daitezke, eta adinaren arabera distantziak osatuko dituzte. ■

Ondo pasa
Karmengo
Jaietan!

eskola publikoa
euskalduna
herrikoa
gurea

Karmengo Ama |PI|

Ulia Etorbidea Trintxerpe
Tel.: 943 89 92 48

Garagune aniztasun funtzionala duten herritarrei begirako eguneko arreta zerbitzu zentro bat da. Trintxerpeko Arrandegi kalean egiten ari da bidea 2020tik, eta une honetan, hamahiru pertsonari ematen diete aterpe egunero. Gipuzkoan hamazazpi Garagune zentro daude, eta horietako bat da Trintxerpekoa. Itunpeko zentroak dira, eta Goyeneche Fundazioak kudeatzen ditu. Amaia Docampo da Trintxerpeko gunearen arduraduna.

Parte hartzeko bi baldintza bete behar dira derrigorrez: 18 urte baino gehiago izatea eta aniztasun funtzionala izatea. Trintxerpen «akonpainamendu zerbitzua» egiten dutela adierazi du Docampok, pertsonak erdigunean jarritz. Zentzu horretan, «pertsonak ondo ezagutzea eta haiek entzutea funtsezkoa» dela baietsi du. Profesionalen laguntzarekin, erabiltzaileek erabakitzen dute «zer egin nahi duten haien bizitzekin, bizitza proiektu bat eraikitzeko eta bizi kalitate ona izateko». Docamporen arabera, Garaguneko pertsonak ez dira «zerbitzu baten erabiltzaileak», baizik eta «gainontzeko herritarrek adina esku-bide» dituzten pasaitarrak.

Garagunen jarduera mordo egiten dituzte asteen, hainbat esparrutakoak, eta bertako pertsonak egin eta proposatzen dituzte. Pertsona guztiek plan bat dutela zehaztu du arduradunak, eta bakoitzak «gustu, interes eta erritmo ezberdinak» ditu. Aldagai horiek kon-



Garaguneko kideak, haien egoitzan. Garagune

Garagune lehen lerroan jarriko dute karmenak

MIKEL DEL VAL GARCIA

tuan hartuta egiten dute lan Trintxerpen, pertsona erdigunean jarrita eta komunitatean lan eginez; izan ere, jarduerak ez dira soilik ate barrura mugatzen, Trintxerpeko eguneroan parte hartzen baitute. Eragileen arteko sare bat dute eraikia.

Festetako protagonistak

Trintxerpeko karmenak lehertzeaz dira, eta Garaguneko kideek botako dute aurtengo txupinazoa. Urduri daude, herriaren ordezkari izango direlako, baina, «harrotasuna eta poztasuna» dute. Suziria pizteko unea «magikoa» izango dela ziur dira, eta «dena emango dutela» hitzeman dute.

Txupinazoak «aniztasun funtzionala lehen lerroan» jarriko duela baietsi du Docampok, «ikusgarritasuna emanez eta gaia normalizatuz». Horrez gain, ziur dira zentroari ikusgarritasuna emango diola, urte osoan egiten duten lana herriari ezagutarazteko. ■

Ainhoa Río Alonso
Clínica Dental / Hartz Klinika

Lantalde guztiaren partetik,
jai zoriontsuak!

943 390 362
arioalonso@gmail.com
Euskadi Etorbidea 29-2. Pasaia

zure taxia!

Taxi Jaizkibel

Donibane. Antxo.
San Pedro. Trintxerpe. Lezo

943.39.14.14

PASAIA - LEZO
LIZEOA

HERRIKO JAİETAN ERE
EUSKARA AHOAN!



EGITARAU OSOA HEMEN

labureus.oarsoagenda



Imanol Saiz

HASIERAN, KOLOREA ETA TXUPINA

HILAREN 15EAN, 19:00ETATIK. Alkateordetzako 19:15eko jaien aurkezpenaren eta txupinazoaren aurretik (irudia iazkoa da), haurrek kolorez hasiko dituzte 2026ko Karmengo Amaren Festak, 19:00etatik haiei begirako Holy Festa izango delako Gernika plazan.



Jai Batzordea

DANBORRADARIK EZ DA FALTAKO

EGUNERO. Trintxerpe danborradaren herria da festetan, sei daudelako. Lehena, hilaren 15eko txupinazoaren ondorengo gizonena da (20:00); hilaren 16an Marine-lena aterako da (17:00); hilaren 17an, familienak hartuko du barrutia (20:30); hilaren 18an bi daude, haurrena 12:00etan eta Azkueneko 17:00etan; 19ko azken egunean da emakumeena, 18:00etan.



Jai Batzordea

AZKUENE ALDEAN BADA ZERTAZ GOZATU

EGUNERO. Azkuene aldean, pistetan eta parkean batez ere, hainbat dira karmenen egitarauaren barruan dauden jarduerak. Hau da, ekitaldi asko Euskadi etorbidearen inguruko plazetan nahiz Serafin Esnaola plazan badira ere, Trintxerpeko goialde horretan giro berezia izaten da. Tarteetan, hilaren 16ko 18:00etan egingo den tortilla txapelketa (iazkoa da irudia).



ERASO SEXISTARIK ETA
LGTBOFORIK GABEKO JAIAK!

FIESTAS SIN AGRESIONES
SEXISTAS NI LGTBOFEBAS

